



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **UPV/EHUko ikasle eta tituludunentzako I. Enplegarritasun Plana (2020 - 2023)**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV/EHU)

IKASLEEN ETA ENPLEGAGARRITASUNAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

PRAKTIKEN ETA ENPLEGAGARRITASUNAREN ZUZENDARITZA

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2020

# UPV/EHUko ikasle eta tituludunentzako I. Enplegarritasun Plana (2020-2023)

## Aurkibidea

|   |           |
|---|-----------|
| <b>Sarrera</b>  | <b>5</b>  |
| <b>I ardatza: zeharkako gaitasunetan oinarritutako prestakuntza</b> | <b>11</b> |
| <b>II ardatza: enplegarritasuna hobetzeko orientazioa</b>           | <b>15</b> |
| <b>III ardatza: laneratzea errazteko bitartekaritza</b>             | <b>21</b> |
| <b>Adierazleak</b>  | <b>27</b> |
| <b>Bibliografia</b>   | <b>31</b> |
| <b>1. Eranskina. Planean parte hartzen duten agenteak</b>           | <b>35</b> |
| <i>I ardatza: zeharkako gaitasunetan oinarritutako prestakuntza</i> | <i>39</i> |
| <i>II ardatza: enplegarritasuna hobetzeko orientazioa</i>           | <i>41</i> |
| <i>III ardatza: laneratzea errazteko bitartekaritza</i>             | <i>45</i> |



Sarrera



Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) erakunde publiko bat da, helburuen artean duena *"kalitatezko goi-mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea"*.

Europako Unibertsitate Eremuaren (EUE) baitan ikasketa planak martxan jarri zirenean, unibertsitateko kideek curriculum garapenerako egitasmo berriak abiarazi behar izan zituzten, tituluen gaitasun espezifikoaren eta enplegarritasunari loturiko zeharkako gaitasunen garapena bermatzeko.

Unibertsitate ikasketa ofizialen antolaketari buruzko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak honako hau dio: *"Ikasketen antolakuntza berriak tituludunen enplegarritasuna areagotuko du...";* graduen oinarrizko gaitasunei buruz, I. eranskinean irakur daiteke: *"ikasleek gai izan behar dute ikasi dutena aplikatzeko beren lanean edo bokazioan modu profesional batean...";* 9. artikulua araberaz: *"gradu ikasketen helburua da ikasleak prestakuntza orokor bat jasotzea, diziplina batean edo gehiagotan, jarduera profesionalerako trebatuko duena";* aldiz, 10. artikulua araberaz: *"master ikasketen helburua da ikasleak prestakuntza aurreratua, espezializatua edo diziplina anitzekoa eskuratzea, espezializazio akademikora edo profesionalera bideratua, edota ikerketa lanetan has dadin bultzatzea"*.

Gainera, doktorego ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak doktoregaien enplegarritasuna sartzen du doktorego programak egiaztatzeko ebaluazio irizpideen artean.

Beraz, unibertsitate prestakuntzak ikuspegi argia du lan munduan sartzeko behar diren gaitasun profesionalak garatzeko.

Hori horrela, UPV/EHUk, titulazioak diseinatzean, kontuan hartu zituen titulu bakoitzaren zeharkako gaitasunak, gaitasun orokorrak eta gaitasun espezifikoak, eta eskoletan eta fakultateetan gogoeta egin eta egitasmo ugari abiarazi dira metodologia berriak bultzatzeko. Zeharkako gaitasunen alorrean, UPV/EHUk argitaratu du *Ikasle guztientzako zeharkako gaitasunen katalogoa* (2019), eta ikastegiak akordioak egin dituzte titulazioetan gaitasunak formulatzeari, irakasgaietan banatzeari eta gaitasun horiek garatzeari eta ebaluatzeari dagokienez.

Unibertsitateak apustu egin du tituluen gaitasunak alor profesional errealean garatzearen alde, eta indartu egin ditu horretarako Prestakuntza Duala, kanpoko praktika akademikoak (curriculumekoak eta curriculumetik kanpokoak) eta erakundeei nahiz enpresei lotutako Gradu Amaierako Lanen, Master Amaierako Lanen eta Doktorego Tesien garapena, UPV/EHUk 2018-2021 urteetarako egin duen plan estrategikoko ekintzek aurreikusi moduan. Gainera, plan horrek planteatutako beste ekintza batzuk ere egin dira: hala nola enplegu foroak antolatzea elkarlanean administrazio publikoarekin, enpresa eta gizarte erakundeekin (elkartek, fundazioak, GKEak, etab.), tituludunen laneratzea errazteko.

Testuinguru horretan, beharrezkotzat jo da UPV/EHUko ikasle eta tituludunentzako I. Enplegarritasun Plana (2020-2023) egitea, lankidetzaren prozesu baten emaitza gisa, gogoetan eta proposamen partekatuetan oinarritua, eragile ugariaren ekarpenekin: Praktiken eta Enplegarritasunaren Zuzendaritzako langileak —esperientzia handia dutenak unibertsiti-



tateko ikasleen eta tituludunen lan orientazioan eta kanpoko praktiken kudeaketan—, hiru campusetako errektoreordetzetako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzakoak, ikastegietako gradu eta graduondoko tituluen praktika programen arduradunak, eta eskoletan eta fakultateetan ikasleen enplegarritasuna sustatzeko egiten diren jardueren arduradunak.

Enplegarritasun Plan hau egin da aintzat harturik EHUagenda 2030 Garapen Iraunkorrari Ekin (2019-2025) egitasmoa, zeina oinarritzen baita NBERen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan eta ekonomia, gizarte eta ingurumen alorrak barne hartzen dituzten haren 17 helburuetan. Zehazki, Agendaren 8. helburua (“Lan duina eta hazkunde ekonomikoa”) honako hau da: *“guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta iraunkorra, enplegu bete eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea”*. Kalitatezko enpleguak desafio handi izaten jarraitzen du ziurgabetasun ekonomikoa nagusi den testuinguru batean, gazteen artean langabezia tasa murriztearekin batera.

UPV/EHUkon prometituta dago ere garapen iraunkorrarekin lotuta dagoen 17. helburuarekin (“Helburuak lortzeko aliantzak”), eta elkarlanean dihardu estatuko eta nazioarteko erakundeekin, publikoak (udalak, aldundiak, Lanbide) nahiz pribatuak (enpresak, korporazioak, irabazi asmorik gabeko elkarteak edo klusterrak, besteak beste).

Horrenbestez, Enplegarritasun Plana lerrokatuta dago Europako Kohesio Politikarekin eta 2020 Europa Estrategiarekin, hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzaile bideratuak, helburu dutenak enplegu beteko ekonomiak sustatzea gizarte eta lurralde kohesioaren bitartez.

Gainera, UPV/EHUk bultzada eman nahi dio ere Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitatea-Enpresa Euskal Estrategia 2022 egitasmoari, xedetzat duena jakintza sortu eta transferitzea, eta giza kapitala sortzea lankidetzaz esparru batean.

UPV/EHUk, Enplegarritasun Plana diseinatu aurretik ere, lan handia egin du ikasleen eta tituludunen enplegarritasunaren alorrean, aukera handiagoak izan ditzaten beren etorkizun profesionalari ekiteko. Lan hori koordinazioan egiten da UPV/EHUko eragile eta zerbitzuekin (1. irudia).

Alde horretatik, nabarmentzekoa da tituluen praktika programen arduradunen lana. Praktiken zerbitzuaren laguntzaz, 12.000 praktika eta prestakuntza dualaren alorreko egonaldi baino gehiago kudeatzen dituzte ikasturte bakoitzean, eta aukera ematen die horrek ikasleei gaitasunak garatzeko eremu profesional errealean.


Gainera, azpimarratzekoa da ere UPV/EHUren 3 campusetako 4 enplegu guneen lana, erreferentia ikasleentzat eta tituludunentzat, tresnak ematen baitizkiete beren enplegarritasuna indartzeko eta enplegu bilaketa bideratzeko, hainbat kanal eta aplikatibo erabiliz enplegu eskaintzak kudeatzeko, zubiak eraikita enpresen eta unibertsitateko kideen artean.

Modu berean, aipatzekoak dira ikastegi bakoitzeko ikasleei irteera profesionalei buruzko informazioa eta orientazioa helarazteko jarduerak enplegu guneekin lankidetzan antolatzeaz arduratzen diren pertsonak.

Hori guztia egiten da koordinazioan, Praktiken eta Enplegarritasunaren arloko Zuzendaritzaren (Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza) eta beste errektoreordetzetako zuzendaritzen artekoa. Zehazki, honako hauekin koordinatuta:

- Hiru campusetako errektoreordetzetako Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzekin, Ekintzailatza Programez arduratzen direnak.






1. irudia: UPV/EHUko eragileen arteko koordinazioa enplegarritasuna sustatzeko

- Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektore-ordetzako Nazioarteko Mugikortasun Zuzendaritzarekin, ikasleen eta tituludunen praktikakindartzeko atzerrian, mugikortasun programen baitan (Erasmus+...).
- Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzako Gradu Ikasketen eta Graduondoko Ikasketen Zuzendaritzekin, tituluen zeharkako gaitasunak eta gaitasun espezifikoak definitzen dituzten Ikasketa Planen arduratzen direnak.
- Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuarekin, prestakuntza antolatu eta emateko erakunde laguntzaileetan praktikak edo egonaldiak egiten dituzten ikasleen tutoretzaz arduratzen diren pertsonen.
- Campus Birtualaren Zuzendaritzarekin, zeharkako gaitasunei buruzko online prestakuntza osagarria emateko gradu eta graduondoko ikasleei.

Egoera on bat dugu abiapuntu, Lanbideren inkesta egin duen UPV/EHUren azken promozioak (2016ko promozioa – 2019ko inkesta) datu onak eman baititu laneratzeari dagokionez: % 90eko okupazio tasa, % 80ko enplegu tasa eta % 10eko langabezia tasa. Nolanahi ere, ezin dugu pentsatu datu hauek mantenduko direnik COVID-19aren pandemia globalak 2020an sortu duen ziurgabetasun egoeran, eta are beharrezkoagoa da Enplegarritasun Plan bat artikulatzea, unibertsitateko ikasleen enplegarritasunarekin lotutako erronka berriei aurre egin eta azken helburua betetzen lagunduko digun tresna bat edukitzeko: kalitatezko laneratze erabatekoa lan merkatuan. Dena den, azpimarratu behar da Plan honetan proposatu diren ekintzak aurrera eramanez ahal izateko beharrezkoa izango dela normaltasun egoeran aritzea. Hortaz, 2020an izandako itxialdia berriro gertatuko balitz, ekintza horietako batzuk ezin izango liriateke aurrera eramanez eta beste batzuk, berriz, derrigorrez egokitu beharko liriateke.

UPV/EHUko ikasle eta tituludunentzako I Enplegarritasun Planak hiru ardatz nagusi ditu, eta bat datoz ikasleen ibilbidearen hiru unerekin: ikasketetan zehar, ikasketak amaitzean eta titulua eskuratu ondorengo unea.

- I ARDATZA: ZEHARKAKO GAITASUNETAN OINARRITUTAKO PRESTAKUNTZA.
- II ARDATZA: ENPLEGARRITASUNA HOBETZEKO ORIENTAZIOA.
- III ARDATZA: LANERATZEA ERRAZTEKO BITARTEKARITZA.



2. irudia: I Enplegarritasun Planaren ardatzak.

ARDATZ bakoitzak helburu batzuk ditu, eta helburu horiek betetzeko ekintzak proposatzen dira. 1. eranskinak zehazten ditu ardatz bakoitzaren ekintzetan parte hartzen duten edo parte hartuko duten eragileak, baita programak ere, gaur egun egiten diren jarduera ugarien berri ere eman nahi baita.

I Ardatza

Zeharkako gaitasunetan  
oinarritutako prestakuntza



## 1.1. helburua

# Enplegagarritasuna sustatzen duten gaitasunak garatzen laguntzea

Baldintza egokiak sortzea ikasleek eta tituludunek tituluen gaitasunak eremu profesional errealean gara ditzaten, enplegagarritasuna sustatzeari begira.

### Ekintzak

- 1.1.1. Kanpoko praktika akademikoak eta egonaldiak indartzea erakunde laguntzaileetan (publikoak, pribatuak eta gizarte erakundeak), tituluaren zeharkako gaitasunen eta gaitasun espezifikoek garapenarekin burutuko diren prestakuntza proiektuen bidez, hainbat kolektibo eta egoeratarako:
  - Estatuko erakundeetan diharduten ikasleak.
  - Nazioarteko testuinguru profesionalean ari diren ikasleak.
  - Desgaitasunen bat duten ikasleak, estatuko eta nazioarteko erakundeetan.
  - Estatuko eta nazioarteko testuinguru profesionalean diharduten tituludunak, horretarako sortutako programa espezifikoek baitan.
- 1.1.2. Ikasketa Amaierako Lanen (GRAL, MAL, doktorego tesiak) garapena sustatzea, erakunde laguntzaileetan, eragileengan inpaktu positibo bat eragingo duten proiektu berritzaileak garatzeko: unibertsitatea (ikasleak-irakasleak), erakunde laguntzailea eta gizartea.
- 1.1.3. Unibertsitate prestakuntza duala sustatzea graduatan eta masterretan.
- 1.1.4. Ikasleak egonaldietan edo kanpoko praktiketan laguntzen eta orientatzen dituzten erakunde laguntzaileetako tutoreak trebatzea, unibertsitateko tutorearekin koordinatuta.
- 1.1.5. Hobekuntzak kudeatzea eta ezartzea ikasleen kanpoko egonaldiak eta praktikak erregistratzen diren aplikazioetan, erakundeek eskaintzak grabatzea eta eragileek eskaintza horiek ebaluatzea errazteko.

## 1.2.helburua: Zeharkako gaitasunak bultzatzea

**Ikasleen eta tituludunen enplegagarritasunari lotutako zeharkako gaitasunen garapena bultzatzea.**

### Ekintzak

- 1.2.1. Koordinazio horizontala eta bertikala indartzea zeharkako gaitasunak garatzeko titulazioaren baitan.
- 1.2.2. Prestakuntza osagarriko ikastaroak eskaintzea, *UPV/EHUren Zeharkako Gaitasunen Katalogoak* zehaztutako gaitasunei loturikoak, gradu azken mailetakoa eta masterretako ikasleei.
- 1.2.3. Enplegu baliabideei buruzko online prestakuntza modulu bat diseinatzea eta inplementatzea (CV, aurkezpen gutuna, elkarrizketa, enplegua bilatzeko atariak...) gradu ikasle guztientzat, titulazioaren nahitaezko irakasgai baten baitan\* (aldez aurretik erabakiko den ordu kopuru batekin). (EUP: Enplegurako Unibertsitate Prestakuntza).
- 1.2.4. Lankidetzak kanpoko erakundeekin eta hainbat titulaziotako ikasleekin, lankidetzak proiektuetan oinarritutako metodologiaren bitartez, ikasleen ahaldundua indartzeko.
- 1.2.5. Zeharkako gaitasunari buruzko prestakuntza eskaintzea EHUalumni sareko kideei.

\* Aurretik, ikastegietan hitzartu beharko litzateke, gradu tituluen arduradunekin batera, zer irakasgai den egokiena enplegurako baliabideak integratzeko. Modulua diseinatuko lukete online ikastaroen diseinuan espezializatutako pertsonak, eta online atazak eta ebaluazio automatikoa izango litzateke. Hala, irakasle-ikertzaileen esku egongo litzateke ikastaroa eta moduluaren kalifikazio automatikoa.

## II Ardatza

# Enplegagarritasuna hobetzeko orientazioa





## 2.1. helburua

### Informazioa ematea ikasleei enplegagarritasuna eta irteera profesionalak sustatzen dituzten jardueri buruz

Informazioa ematea ikasleei (unibertsitate aurreko ikasle potentzialak barne, unibertsitate ikasketak hasi aurretik) titulazioetan enplegagarritasuna sustatzeko garatzen diren jardueri eta irteera profesionali buruz, halako moldez, non lagungarria izango den garapen pertsonala eta profesionala indartuko duten erabaki akademiko egokiak hartzeko.

#### Ekintzak

- 2.1.1. Informazioa ematea ikasleei eta ikasle potentzialei hainbat titulaziotan kanpoko praktikak (curriculumekoak eta curriculumetik kanpokoak) eta prestakuntza dualeko egonaldiak erakunde laguntzaileetan egiteko aukerei buruz, baita irteera profesionali buruz ere, orientazio azoka eta jardunaldietan (Unibertsitate Orientazioko Azokak, Ateak Zabaltzeko Egunak, jarduera praktikoak, orientazio bilerak).
- 2.1.2. Ikasleei aurkeztea nazioarteko ikasketa eta praktiken mugikortasun programak.
- 2.1.3. Informazioa ematea unibertsitate aurreko ikasleei tituludunen laneratzeari buruz\*.

---

\* Lotuta dago egresatuei titulua eskuratu eta hiru urtera egiten zaien inkestaren emaitzei, UPV/EHUren eta Lanbideren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren baitan.

## 2.2.helburua

### Informazioa eta orientazioa eskaintzea ikasleei profil profesionala garatzen lagun diezaieketen agertokiei buruz

Informazioa ematea ikasleei gaitasunak eskuratu eta beren burua orientatzeko balia ditzaketen alor edo agertokiei buruz, garatu nahi duten profil profesionalaren arabera.

#### Ekintzak

- 2.2.1. Informazioa ematea estatuko eta atzerriko erakunde laguntzaileetan kanpoko praktiken (curriculumekoak eta curriculumetik kanpokoak) eta prestakuntza dualaren alorrean eginiko egonaldien baitan balia daitezkeen agertoki profesionalei buruz, baita profil profesionala garatzen lagun dezaketen ezaugarriei buruz ere.
- 2.2.2. Orientazioa ematea ikasleei erakunde laguntzaileetan ikasketa amaierako lanak egiteko aukerei buruz (GRAL, MAL eta doktorego tesiak).
- 2.2.3. Informazioa ematea enplegarritasuna susta dezaketen jarduera osagarriei buruz (uda ikastaroak...).
- 2.2.4. Informazioa ematea estatuko eta atzerriko erakundeetan praktikak eta egonaldiak egiteko beka deialdiei buruz, prestakuntza aldi gaitasunak garatzeari begira.

## 2.3.helburua

### Azken ikasturteko ikasleak eta tituludunak trebatzea laneratzea errazteari begira

Azken ikasturtean edo titulua lortu ondoren, prestakuntza eta orientazioa ematea ikasleei, behar adina informazio eta tresna izan ditzaten enplegua aktiboki bilatzeko eta lan munduan sartzeko.

#### Ekintzak

- 2.3.1. Informazio saioak antolatzea ikasleentzat hainbat testuingurutan (ikastegiak, enplegu foroak...), enplegu guneak aurkezteko, informazioa emateko enplegurako baliabideei eta laneratzea errazteko kanalei buruz (enplegu eskaintzak argitaratzen dituzten web orriak, gaitasun profesionaleri buruzko informazioa ematen dutenak...).
- 2.3.2. Banan-banan eta modu pertsonalizatuan orientatzea azken ikasturteetako ikasleak eta tituludunak, curriculuma, aurkezpen gutuna eta lan elkarrizketa egiteko moduari buruz, eta laguntza ematea Lanbiden enplegu bilatzaile gisa alta hartzeko tramitazioan edo datuak eguneratzeko orduan.
- 2.3.3. Informazioa ematea UPV/EHUk azken ikasturteetako ikasleentzat eta tituludunentzat duen enplegu eskaintzen aplikazioaren funtzionamenduari buruz, eta aplikazio horretarako sarbidea erraztea.
- 2.3.4. Informazioa ematea estatuko eta nazioarteko erakundeetan praktikak egiteko programei eta prestakuntza ikastaroei buruz, lagungarriak izan litezkeenak profil profesionala garatzeko titulazioaren azken txanpan edo titulua lortu ondoren.
- 2.3.5. Aukera profesionaleri buruzko jardunaldiak antolatzea ikastegi bakoitzean, tituluaren amaieran dauden ikasleentzat, hainbat gai aurkezteko: jarduera arloak, betebeharrak profesionalak, enpresa motak, enplegu eskaintza publikoa, etab.
- 2.3.6. Erraztasunak ematea ikasketak amaitzean dauden ikasleei edo lehenengo lan esperientziak izan dituztenei (ekintzaileak barne) mentore baten laguntza eskura dezaten, garapen pertsonal, akademiko eta profesionalean lagun diezaien esperientzia profesional handiko pertsona horrek.
- 2.3.7. Potentzial handiagoa duten unibertsitateko kolektiboari laguntzea, kanpoko erakundeekin lankidetzan, garapen profesional egoki bat izan dezaten, eta ikasleak hurbiltzea errealitate zientifikora, teknologikora eta enpresarialera.

## 2.4. helburua

### Ekintzailtza sustatzea

Espiritu ekintzailea sustatzea UPV/EHU<sup>n</sup>, eta prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea unibertsitateko kideei, merkatuarentzat berrikuntza maila esanguratsua duten enpresa egitasmoak sustatzeko, enpresak sortzeko eta finkatzeko faseak barne.

#### Ekintzak

- 2.4.1. Informazioa ematea campus bakoitzean garatzen diren ekintzailtza programei eta erakunde laguntzaileen ekintzailtzarako laguntzen deialdiei buruz.
- 2.4.2. Ekintzailtza kultura sustatzea, ideia berriak sortzea eta talentua garatzea lagunduko duten ekitaldiak antolatuta.
- 2.4.3. Orientazioa eta aholkularitza eskaintzea enpresak sortzeko prozesuan zehar.
- 2.4.4. Tresnak eta baliabideak ematea ekintzailtzarako gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzeko, aukera emango dutenak martxan jartzeko ekintzailtza proiektuak eta egitasmoak.
- 2.4.5. Ekintzaileak detektatzen eta erakartzen laguntzea, baita enpresa egitasmo berriak ekar ditzaketen ideiei balioa ematen ere.
- 2.4.6. Balioa ematea emaitzei, unibertsitateko kideek sortutako enpresa ekimenen dibulgazioaren, hedapenaren eta aitorpenaren bitartez.
- 2.4.7. Emakumeen ekintzailtza sustatzea, generoaren araberako ikasleen partaidetza orekatua indartzea ekintzailtza jardueretan, eta emakume ekintzaileen ahalduntzea laguntzea.
- 2.4.8. Desgaitasuna duten pertsonen ekintzailtza laguntzea.

# III Ardatza

## Laneratzea errazteko bitartekaritza



## 3.1. helburua

### Bitartekari lana egitea ikasleen nahiz tituludunen eta erakunde enplegatzailen artean

Ingurune egokiak sortzea bitartekaritza bultzatzeko ikasleen nahiz tituludunen eta erakunde publiko, pribatu eta sozialen artean, laneratzea errazteari begira.

#### Ekintzak

- 3.1.1. Enplegu Foroak antolatzea campus bakoitzean, UPV/EHUko ikasleek eta egresatuek hainbat erakunderen enplegu eskaintzak ezagutzeko eta beren hautagaitzak aurkezteko modua izan dezaten.
- 3.1.2. Enplegu foroak antolatzea eskoletan eta fakultateetan, harremanetan jartzeko ikasleak eta lehen lanaren bila dabiltzan tituludun berriak ikastegien titulazioetako profiletan interesatuta dauden enpresekin.
- 3.1.3. Saiok antolatzea kanpoko erakundeek informazioa eman dezaten beren jardueri, kontratazio politikei, enplegu publikoari... buruz.
- 3.1.4. Informazioa ematea kanpoko erakundeei unibertsitateak enplegarritasuna sustatzeko egiten dituen jardueri eta parte har dezaketen programei buruz.
- 3.1.5. Eskerrak ematea ikasleen prestakuntzan laguntzen duten kanpoko erakundeei, balioa emanez egiten duten lanari.

## 3.2. helburua

### Lan aukerak baliatzen laguntzea

Lan aukerak baliatzen laguntzea UPV/EHUko ikasleei eta titulu-dunei, lan merkatuan sar daitezzen edo beren enplegu egoera hobetu dezaten.

#### Ekintzak

- 3.2.1. Kanpoko erakundeen enplegu eskaintzak argitaratzen dituen UPV/EHUren LANBILA aplikazioa garatzea, erreferentziazko enplegu poltsa bihur dadin unibertsitateko tituludunentzat.
- 3.2.2. Lehen enplegua eskuratzen laguntzea, beste erakunde batzuekin elkarlanean (Lanbide...).



### 3.3. helburua

## Unibertsitate prestakuntza egokitzea gizartearen beharretara

Baldintza egokiak sortzea egokitzapen handiago bat egon dadin unibertsitate prestakuntzaren eta euskal gizartearen beharren artean.

#### Ekintzak

- 3.3.1. Gizarte eragileei galdetzea tituludunen gaitasunen eta egungo nahiz etorkizuneko premia profesionalen arteko bat etortzeari buruz.
- 3.3.2. Lanbidek egresatuei jasotako prestakuntzari buruz egiten dien inkestaren emaitzak aztertzea, eta enplegatzailen erantzunekin alderatzea.
- 3.3.3. Prestakuntza jarduerak egokitzea, detektatutako premiei erantzuteko.



# Adierazleak



- Erakunde laguntzaileetan eginiko egonaldi eta kanpoko praktika akademiko kopurua.
- Erakunde laguntzaileetan eginiko GRAL, MAL eta tesi kopurua.
- Unibertsitateko prestakuntza dualean dauden ikasleen kopurua (gradua eta masterra).
- Tutoretza prestakuntza duten erakunde laguntzaileetako tutore kopurua.
- Zeharkako gaitasunei buruzko prestakuntza osagarriko ikastaro kopurua.
- Zeharkako gaitasunei buruzko prestakuntza osagarriko ikastaroetan parte hartzen duen gradu eta master ikasle kopurua.
- Zeharkako gaitasunei buruzko prestakuntza osagarriko ikastaroetan parte hartzen duen EHUalumni kide kopurua.
- Kanpoko erakundeekiko lankidetzeta proiektuetan parte hartzen duen ikasle kopurua (ikasleek zeharkako gaitasunak garatzen dituzten proiektuak).
- Erakunde laguntzaileetan eginiko kanpoko praktikei eta egonaldiei buruzko informazio saio kopurua.
- Erakunde laguntzaileetan eginiko kanpoko praktikei eta egonaldiei buruzko informazio saioetan parte hartzen duen ikasle kopurua.
- Nazioarteko ikasketa eta praktiken mugikortasun programei buruzko informazio saio kopurua.
- Nazioarteko ikasketa eta praktiken mugikortasun programei buruzko informazio saioetan parte hartzen duen ikasle kopurua.
- Enpleguaren bilaketa aktiboa eta laneratzea errazten duten tresnei buruzko prestakuntza saio kopurua.
- Enpleguaren bilaketa aktiboa eta laneratzea errazten duten tresnei buruzko prestakuntza saioetan parte hartzen duen ikasle kopurua.
- Enplegu guneetan eginiko orientazio kopurua.
- Titulazioen aukera profesionalei buruz eginiko orientazio jardunaldi kopurua.
- Titulazioen aukera profesionalei buruz eginiko orientazio jardunaldietan parte hartzen duen ikasle kopurua.
- Mentorizazio programetan parte hartzen duen ikasle kopurua.
- Ekintzailatza programen inguruan eginiko informazio saio kopurua.

- Ekintzailletza programen inguruan eginiko informazio saioetan parte hartzen duen ikasle kopurua.
- Ekintzailletza kultura indartzeko antolatutako ekitaldi kopurua.
- Ekintzailletza kultura indartzeko antolatutako ekitaldietan parte hartzen duen ikasle kopurua.
- Sortutako enpresa kopurua.
- Antolatutako Enplegu Foro kopurua.
- Enplegu Foroetan parte hartzen duen enpresa kopurua.
- Enplegu Foroetako enplegu eskaintza aktiboen kopurua.
- Enplegu Foroetan parte hartzen duen ikasle kopurua.
- Unibertsitatearen enpleguaren aplikazioan kudeatutako enplegu eskaintza kopurua.
- Kontratazio kopurua unibertsitatearen enpleguaren aplikazioan kudeatutako eskaintzei dagokienez.

# Bibliografia





Europako Batzordea. Eskualde politika – Inforegio. Kohesio politika eta Europa 2020 estrategia.

[https://ec.europa.eu/regional\\_policy/archive/policy/future/eu2020\\_es.htm](https://ec.europa.eu/regional_policy/archive/policy/future/eu2020_es.htm)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2011). 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena. EHAA 38, 2011ko otsailaren 24a.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (2007). 1393/2007 Errege Dekretua, urriaren 29koa, unibertsitate ikasketa ofizialak antolatzen dituena. Erreferentzia: BOE-A-2007-18770.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (2011). 99/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, doktoregoko ikasketa ofizialak antolatzen dituena.

NBE (2015). Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda. Garapen Iraunkorrerako Helburuak.  
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>  
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/>

UPV/EHU (2018). UPV/EHU 2018-2021 Plan Estrategikoa.

<https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/plan-estrategikoa-2018-2021>

UPV/EHU (2019). EHUagenda 2030 Garapen Iraunkorrari Ekin (2019-2025).

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>

UPV/EHU (2019). UPV/EHUren Zeharkako Gaitasunen Katalogoa.

<https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/zeharkako-gaitasunak>



# 1. eranskina

Planean parte hartzen  
duten agenteak



Eranskin honek biltzen ditu ardatzen ekintzetan eta programetan parte hartzen duten edo parte hartuko duten agenteak, gaur egun egiten diren jarduera ugarien berri ere eman nahi baita. Agenteen siglak eta akronimoen esanahia jakiteko ikus 1. taula.

| 1. taula: AGENTEEN SIGLAK ETA AKRONIMOAK |   |
|--|---|
| Bk.                                      | Bekak   |
| KIZ                                      | Kudeaketarako Informatika Zentroa                                 |
| CBZ                                      | Campus Birtualaren Zuzendaritza                                   |
| GIZ                                      | Graduko Ikasketen Zuzendaritza                                    |
| GOIZ                                     | Graduondoko Ikasketen Zuzendaritza                                |
| BZ                                       | Berdintasunerako Zuzendaritza                                     |
| PEZ                                      | Praktiken eta Enplegarritasunaren Zuzendaritza                    |
| MPZ                                      | Mugikortasun Programen Zuzendaritza                               |
| CKHZ                                     | Campuseko Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza                      |
| EHni                                     | EHUalumni   |
| EGL                                      | Enplegu Guneko Langileak  |
| IRI                                      | Irakasle-ikertzaileak   |
| CEL                                      | Campuseko Ekintzailetzako Langileak                               |
| OIDEL                                    | Orientazioan eta Ikastaroen Diseinuan Espezializatutako Langileak |
| Pr                                       | Programa  |
| DZL                                      | Desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko Zerbitzuko Langileak      |
| PZL                                      | Praktiken Zerbitzuko Langileak                                    |
| IT                                       | Irakasle Tutorea  |
| IA                                       | Ikasleen Arduraduna   |
| EPA                                      | Enplegu Programaren Arduraduna                                    |
| MPA                                      | Mugikortasun Programaren Arduraduna                               |
| PPA                                      | Praktika Programen Arduradunak                                    |
| TA                                       | Titulazio Arduraduna  |
| IALA                                     | Ikasketa Amaierako Lanen Arduradunak                              |
| HELAZ                                    | Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua                                  |
| IAZ                                      | Ikasleentzako Argibide Zerbitzua                                  |



# I ardatza

## Zeharkako gaitasunetan oinarritutako prestakuntza

### 1.1. helburua: Enplegagarritasuna sustatzen duten gaitasunak garatzen laguntzea

Baldintza egokiak sortzea ikasleek eta tituludunek tituluen gaitasunak eremu profesionalak errealean gara ditzaten, enplegagarritasuna sustatzeari begira.

| Ekintzak  | Parte hartzaileak, Pr.           |
|---|----------------------------------|
| 1.1.1 Kanpoko praktika akademikoak eta egonaldiak indartzea erakunde laguntzaileetan (publikoak, pribatuak eta gizarte erakundeak), tituluaren zeharkako gaitasunen eta gaitasun espezifikoaren garapenarekin burutuko diren prestakuntza proiektuen bidez, hainbat kolektibo eta egoeratarako: | PEZ-PZL                          |
| – Estatuko erakundeetan diharduten ikasleak.  | (Praktiken Pr., Bk. Trans. Pr.)  |
| – Nazioarteko erakundeetan ari diren ikasleak.  | EGL (Ikasle Prakt. Pr.)          |
| – Desgaitasunen bat duten ikasleak, estatuko eta nazioarteko erakundeetan.  | DZL<br>PPA<br>PEZ-PZL            |
| – Estatuko eta nazioarteko testuinguru profesionalean diharduen tituludunak, horretarako sortutako programa espezifikoaren baitan.  | Bk. Trans. Pr.<br>EGL (EPEZ Pr.) |
| 1.1.2 Ikasketa Amaierako Lanen (GRAL, MAL, doktorego tesiak) garapena sustatzea, erakunde laguntzaileetan, eragileengan inpaktu positibo bat eragingo duten proiektu berritzaileak garatzeko: unibertsitatea (ikasleak-irakasleak), erakunde laguntzailea eta gizartea.                         | IALA-TA<br>GIZ-GOIZ              |
| 1.1.3 Unibertsitate prestakuntza duala sustatzea graduatan eta masterretan.   | GIZ-GOIZ<br>TA                   |
| 1.1.4 Ikasleak egonaldietan edo kanpoko praktikan laguntzen eta orientatzen dituzten erakunde laguntzaileetako tutoreak trebatzea, unibertsitateko tutorearekin koordinatuta.   | PPA-IT                           |
| 1.1.5 Hobekuntzak kudeatzea eta ezartzea ikasleen kanpoko egonaldiak eta praktikak erregistratzen diren aplikazioetan, erakundearen eskaintzak grabatzea eta eragileek eskaintza horiek ebaluatzea errazteko.   | PEZ-PZL<br>PPA<br>KIZ            |

## 1.2. helburua

### Zeharkako gaitasunak bultzatzea

Ikasleen eta tituludunen enplegagarritasunari lotutako zeharkako gaitasunen garapena bultzatzea.

| Ekintzak  | Parte hartzaileak, Pr.     |
|---|----------------------------|
| 1.2.1. Koordinazio horizontala eta bertikala indartzea zeharkako gaitasunak garatzeko tituluaren baitan.  | TA<br>GIZ-GOIZ<br>HELAZ    |
| 1.2.2. Prestakuntza osagarriko ikastaroak eskaintzea, UPV/EHUren <i>Zeharkako Gaitasunen Katalogoak</i> zehaztutako gaitasunei loturikoak, graduiko azken mailetakoa eta masterretako ikasleei.   | PEZ-OIDEL<br>CBZ           |
| 1.2.3. Enplegu baliabideei buruzko online prestakuntza modulu bat diseinatzea eta inplementatzea (CV, aurkezpen gutuna, elkarrizketa, enplegua bilatzeko atariak...) graduiko ikasle guztientzat, tituluaren nahitaetzko irakasgai baten baitan* (aldez aurretik erabakiko den ordu kopuru batekin). (EUP: Enplegurako Unibertsitate Prestakuntza). | PEZ-OIDEL<br>CBZ<br>TA-IRI |
| 1.2.4. Lankidetzak kanpoko erakundeekin eta hainbat titulutako ikasleekin, lankidetzak proiektuetan oinarritutako metodologiaren bitartez, ikasleen ahalduak indartzeko.  | PEZ-OIDEL                  |
| 1.2.5. Zeharkako gaitasunei buruzko prestakuntza eskaintzea EHUalumni sareko kideei.  | EHni                       |

\* Aurretik, ikastegietan hitzartu beharko litzateke, graduiko tituluen arduradunekin batera, zer irakasgai den egokiena enplegurako baliabideak integratzeko. Modulua diseinatuko lukete online ikastaroen diseinuan espezializatutako pertsonak, eta online atazak eta ebaluazio automatikoa izango litzuzke. Hala, irakasle-ikertzaileen esku egongo lirateke ikastaroa eta moduluaren kalifikazio automatikoa.



## II ardatza

### Enplegarritasuna hobetzeko orientazioa

#### 2.1. helburua

#### Informazioa ematea ikasleei enplegarritasuna eta irteera profesionalak sustatzen dituzten jardueri buruz

Informazioa ematea ikasleei (unibertsitate aurreko ikasle potentzialak barne, unibertsitate ikasketak hasi aurretik) tituluetan enplegarritasuna sustatzeko garatzen diren jardueri eta irteera profesionali buruz, halako moldez, non lagungarria izango den garapen pertsonala eta profesionala indartuko duten erabaki akademiko egokiak hartzeko.

| Ekintzak   | Parte hartzaileak, Pr.       |
|--|------------------------------|
| 1.2.1. Informazioa ematea ikasleei eta ikasle potentzialei hainbat titulutan kanpoko praktikak (curriculumekoak eta curriculumetik kanpokoak) eta prestakuntza dualeko egonaldiak erakunde laguntzaileetan egiteko aukerei buruz, baita irteera profesionali buruz ere, orientazio azoka eta jardunaldietan (Unibertsitate Orientazioko Azokak, Ateak Zabaltzeko Egunak, jarduera praktikoak, orientazio bilerak). | IAZ<br>PEZ-EGL<br>PPA-TA-EPA |
| 1.2.2. Ikasleei aurkeztea nazioarteko ikasketa eta praktiken mugikortasun programak.   | MPZ<br>PEZ-EGL<br>MPA        |
| 1.2.3. Informazioa ematea unibertsitate aurreko ikasleei tituludunen laneratzeari buruz**.   | PEZ-EGL<br>IAZ<br>IA-EPA-PPA |

\* Lotuta dago egresatuei titulua eskuratu eta hiru urtera egiten zaien inkestaren emaitzei, UPV/EHUren eta Lanbideren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren baitan.

## 2.2. helburua

### Informazioa eta orientazioa eskaintzea ikasleei profil profesionala garatzen lagun diezaieketen agertokiei buruz.

Informazioa ematea ikasleei gaitasunak eskuratu eta beren burua orientatzeko balia ditzaketen alor edo agertokiei buruz, garatu nahi duten profil profesionalaren arabera.

| Ekintzak   | Parte hartzaileak, Pr. |
|--|------------------------|
| 2.2.1. Informazioa ematea estatuko eta atzerriko erakunde laguntzaileetan prestakuntza dualaren alorrean eginiko kanpoko praktiken (curriculumekoak eta curriculumetik kanpokoak) eta egonaldien baitan balia daitezkeen agertoki profesionalei buruz, baita profil profesionala garatzen lagun dezaketen ezaugarriei buruz ere. | PPA<br>MPA             |
| 2.2.2. Orientazioa ematea ikasleei erakunde laguntzaileetan ikasketa amaierako lanak egiteko aukerei buruz (GRAL, MAL eta doktorego tesiak).   | IALA                   |
| 2.2.3. Informazioa ematea enplegarritasuna susta dezaketen jarduera osagarriei buruz (uda ikastaroak...).  | PPA-EPA<br>PEZ-EGL     |
| 2.2.4. Informazioa ematea estatuko eta atzerriko erakundeetan praktikak eta egonaldiak egiteko beka deialdiei buruz, prestakuntza aldian gaitasunak garatzeari begira.   | PPA-EPA<br>MPA<br>EGL  |

## 2.3. helburua

### Azken mailako ikasleak eta tituludunak trebatzea laneratzea errazteari begira

Azken ikasturtean edo titulua lortu ondoren, prestakuntza eta orientazioa ematea ikasleei, behar adina informazio eta tresna izan ditzaten enplegua aktiboki bilatzeko eta lan munduan sartzeko.

| Ekintzak   | Parte hartzaileak, Pr.                               |
|--|--|
| 2.3.1. Informazio saioak antolatzea ikasleentzat hainbat testuingurutan (ikastegiak, enplegu foroak...), enplegu guneak aurkezteko, informazioa emateko enplegurako baliabideei eta laneratzea errazteko kanalei buruz (enplegu eskaintzak argitaratzen dituzten web orriak, gaitasun profesionaleri buruzko informazioa ematen dutenak...). | EPA (ikastegian denean)<br>EGL                       |
| 2.3.2. Banan-banan eta modu pertsonalizatuan orientatzea azken ikasturteetako ikasleak eta tituludunak, curriculumak, aurkezpen gutuna eta lan elkarrizketa egiteko moduari buruz, eta laguntza ematea Lanbiden enplegu bilatzaile gisa alta hartzeko tramitazioan edo datuak eguneratzeko orduan.   | EGL  |
| 2.3.3. Informazioa ematea UPV/EHUk azken ikasturteetako ikasleentzat eta tituludunentzat duen enplegu eskaintzen aplikazioaren funtzionamenduari buruz, eta aplikazio horretarako sarbidea erraztea.   | EGL  |
| 2.3.4. Informazioa ematea estatuko eta nazioarteko erakundeetan praktikak egiteko programei eta prestakuntza ikastaroei buruz, lagungarriak izan litezkeenak profil profesionala garatzeko titulazioaren azken txanpan edo titulua lortu ondoren.  | PPA<br>EPA<br>MPA<br>EGL                             |
| 2.3.5. Aukera profesionaleri buruzko jardunaldiak antolatzea ikastegi bakoitzean, tituluaren amaieran dauden ikasleentzat, hainbat gai aurkezteko: jarduera arloak, betebeharrak profesionalak, enpresa motak, enplegu eskaintza publikoa, etab.   | EPA<br>Kanpoko erakundeak (elkargo profesionalak...) |
| 2.3.6. Erraztasunak ematea ikasketak amaitzean dauden ikasleei edo lehenengo lan esperientziak izan dituztenei (ekintzaileak barne) mentore baten laguntza eskura dezaten, garapen pertsonal, akademiko eta profesionalean lagun diezaien esperientzia profesional handiko pertsona horrek.  | EHni<br>Mentoring Pr.                                |
| 2.3.7. Potentzial handiagoa duten unibertsitateko kolektiboek laguntza, kanpoko erakundeekin lankidetzan, garapen profesional egoki bat izan dezaten, eta ikasleak hurbiltzea errealitate zientifikora, teknologikora eta enpresarialera.  | Talentia Pr.<br>EGL                                  |

## 2.4. helburua

### Ekintzailletza sustatzea

Espiritu ekintzailea sustatzea UPV/EHU, eta prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea unibertsitateko kideei, merkatuarentzat berrikuntza maila esanguratsua duten enpresa egitasmoak sustatzeko, enpresak sortzeko eta finkatzeko faseak barne.

| Ekintzak   | Parte hartzaileak, Pr.              |
|--|-------------------------------------|
| 1.1.1. Informazioa ematea campus bakoitzean garatzen diren ekintzailletza programei eta erakunde laguntzaileen ekintzailletzarako laguntzen deialdiei buruz.                           | CKHZ-CEL<br>PEZ-EGL-EHni<br>EPA-IRI |
| 1.1.2. Ekintzailletza kultura sustatzea, ideia berriak sortzea eta talentua garatzea lagunduko duten ekitaldiak antolatuta.  | CKHZ-CEL<br>PEZ-OIDEL<br>EPA-IRI    |
| 1.1.3. Orientazioa eta aholkularitza eskaintzea enpresak sortzeko prozesuan zehar.   | CKHZ-CEL                            |
| 1.1.4. Tresnak eta baliabideak ematea ekintzailletzarako gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzeko, aukera emango dutenak martxan jartzeko ekintzailletza proiektuak eta egitasmoak. | CKHZ-CEL                            |
| 1.1.5. Ekintzaileak detektatzen eta erakartzen laguntzea, baita enpresa egitasmo berriak ekar ditzaketen ideiei balioa ematen ere.   | CKHZ-CEL                            |
| 1.1.6. Balioa ematea emaitzei, unibertsitateko kideek sortutako enpresa ekimenen dibulgazioaren, hedapenaren eta aitorpenaren bitartez.  | CKHZ-CEL                            |
| 1.1.7. Emakumeen ekintzailletza sustatzea, generoaren araberako ikasleen partaidetza orekatua indartzea ekintzailletza jardueretan, eta emakume ekintzaileen ahalduntzea laguntzea.    | CKHZ-CEL<br>BZ<br>EPA               |
| 1.1.8. Desgaitasuna duten pertsonen ekintzailletza laguntzea.  | CKHZ-CEL<br>DZL                     |

## III ardatza

### Laneratzea errazteko bitartekaritza

#### 3.1. helburua

**Bitartekari lana egitea ikasleen nahiz tituludunen eta erakunde enplegatzailen artean.**

Ingurune egokiak sortzea bitartekaritza bultzatzeko ikasleen nahiz tituludunen eta erakunde publiko, pribatu eta sozialen artean, laneratzea errazteari begira.

| Ekintzak   | Parte hartzaileak, Pr.     |
|--|----------------------------|
| 3.1.1. Enplegu Foroak antolatzea campus bakoitzean, UPV/EHUko ikasleek eta egresatuek hainbat erakunderen enplegu eskaintzak ezagutzeko eta beren hautagaitzak aurkezteko modua izan dezaten.                        | PEZ-EGL<br>CKHZ            |
| 3.1.2. Enplegu foroak antolatzea eskoletan eta fakultateetan, harremanetan jartzeko ikasleak eta lehen lanaren bila dabiltzan tituludun berriak ikastegien titulazioetako profiletan interesatuta dauden enpresekin. | EPA-PPA                    |
| 3.1.3. Saioak antolatzea kanpoko erakundeek informazioa eman dezaten beren jarduerari, kontratazio politikei, enplegu publikoari... buruz.   | PEZ-EGL<br>CKHZ<br>EPA-PPA |
| 3.1.4. Informazioa ematea kanpoko erakundeek unibertsitateak ekintzailatza sustatzeko egiten dituen jarduerari eta parte har dezaketen programei buruz.  | PEZ-EGL<br>EPA-PPA         |
| 3.1.5. Eskerrak ematea ikasleen prestakuntzan laguntzen duten kanpoko erakundeek, balioa emanez egiten duten lanari.   | PEZ<br>PPA<br>EHni         |

### 3.2. helburua

#### Lan aukerez baliatzen laguntzea

Lan aukerak baliatzen laguntzea UPV/EHUko ikasleei eta titulu-dunei, lan merkatuan sar daitezen edo beren enplegu egoera hobetu dezaten.

| Ekintzak  | Parte hartzaileak, Pr.   |
|---|--------------------------|
| 3.2.1. Kanpoko erakundeen enplegu eskaintzak argitaratzen dituen UPV/EHUren LANBILA aplikazioa garatzea, erreferentziazko enplegu poltsa bihur dadin unibertsitateko tituludunentzat. | PEZ-EGL<br>KIZ           |
| 3.2.2. Lehen enplegua eskuratzen laguntzea, beste erakunde batzuekin elkarlanean (Lanbide...).  | PEZ-<br>Lehen Aukera Pr. |

### 3.3. helburua

#### Unibertsitate prestakuntza egokitzea gizartearen beharretara

Baldintza egokiak sortzea egokitzapen handiago bat egon dadin unibertsitate prestakuntzaren eta euskal gizartearen beharren artean.

| Ekintzak   | Parte hartzaileak, Pr.       |
|--|------------------------------|
| 3.3.1. Gizarte eragileei galdetzea tituludunen gaitasunen eta egungo nahiz etorkizuneko premia profesionalen arteko bat etortzeari buruz.        | TA-PPA-EPA                   |
| 3.3.2. Lanbidek egresatuei jasotako prestakuntzari buruz egiten diren inkestaren emaitzak aztertzea, eta enplegatzailen erantzunekin alderatzea. | Lanbide-EGL<br>EPA-TA        |
| 3.3.3. Prestakuntza jarduerak egokitzea, detektatutako premiei erantzuteko.  | TA-PPA-EPA<br>PEZ-OIDEL-EHni |